

Gradu Amaierako Lana
Mendebaldeko Mugalde Goiena
Ekialdeko Muga aitzindari

Egilea: Jokin Ituarte Arrizubieta

Tutorea: Jesús Lorenzo Jiménez

Historiako Gradua, 2021-2022 ikasturtea

Filologia eta Historia saila

Gasteiz

Laburpena

Muga kontzeptuak denboran aurrera izandako garapen sakon bezain konplexua kontuan izanik, iraganeko mugei ezingo litzaizkieke egungo mugen balioak erantsi. Mugaren balioak gizataldeek zehaztuko dituzten bide beretik gizartearen konfigurazioan mugak ere zer esan handia izango du. Bide horretan, iraganeko herriekiko azterketa osotuagoa gauzatzeko bide oso erabilgarritzat har genezake mugaren gaineko ikerketa, gizarte eta mugaren arteko lotura sakona oinarri. Hori horrela, lan honetan ikusmira VIII. eta IX. mendeetan zehar Ebro bailaran barrena hedatuko zen al-Andalus-eko Mugalde Goienean jarri, eta hango giza taldeek mugarekin harremanetan garatuko duten gizartea aztertzea izango dugu xede.

Lehenik, sarrera gisara mugaren inguruan izandako interpretazio eta hausnarpen ezberdinak jorratuko ditugu. Jarraiki, Eduardo Manzanok mahaigaineratuko duen islamiar mugen arteko eskemen erreproduzioaren ideia oinarri izanik, muga islamiarrak jatorria izango lukeen Anatoliar penintsulako mugan jarriko dugu arreta, lanaren muina litzateken Mugalde Goieneko errealitatea hango eskemetan oinarrituko baita.

Ondoren, Anatoliako mugaz jardun ostean, lan honen mamia dugun Mugalde Goienean sakontzeari ekingo diogu. Hasteko, mugaldean Islamak hegemonia zuen lurraldean, *dār al-Islām*-ean kokaturik hango alor politiko-administratiboa zein sozio-kulturalaz hitz egingo dugu, ezaugarriok Anatoliako eskemetan izandako oinarria kontuan. Jarraitzeko, Goi Mugako ezaugarriak liratzekin dinamikotasun eta aniztasuna adibide zehatzekin errealitatean forma nola hartzen zuten ikusteko mugan izandako leinu nagusienetako bi aztertuko ditugu, bata muladī-a, bestea arabiarra: Banū Qasī eta Banū Tuḡyīb leinuak. Leinuok aztertu ostean *dār al-Islām* eremutik ezberdintzen zen mugako *dār al-Ṣulḥ* eremu bereziaz ere hitz egingo da, kontzeptu horrek mugaren artikulazio-prozesuan izango duen eragina azpimarratuz.

Amaitzeko, lanaren azken atalean ondorio orokorrak mahaigaineratuko dira, ateratako hausnarpen nagusiak laburbilduz. Horrela, muga konfigurazio elementu esanguratsutzat zuen eremu hartako gizartean nagusituko zen aniztasun, dinamismo zein Ekialdeko elementuen eragina argudiatuko da aurretik azalduak izan diren ideia zein adibideetan oinarrituz, modu osotu bezain argian.

Hitz-gakoak: Muga - thagr - Mugalde Goiena - Ekialdeko thugur - dar al-Islam - dar al-Sulh - Banu Qasi - Banu Tujib

Aurkibidea

1.	Sarrera: Erdi Aroko muga	3
2.	Anatoliar penintsulako mugaldea	5
3.	Iberiar penintsulako Mugalde Goiena	9
3.1.	<i>Dār al-Islām</i>	9
3.1.1.	Alor politiko-administratiboa	11
3.1.2.	Alor sozio-kulturala	14
3.1.3.	Mugalde Goieneko zenbait leinu	15
	A. Banū Qasī leinua	15
	B. Banū Tuḡyīb leinua	17
	C. Leinuen gaineko ondorioak	19
3.2.	<i>Dār al-Ṣulḥ</i>	21
4.	Ondorioak	24
5.	Bibliografia	26

1. Sarrera: Erdi Aroko muga

Muga balio anitzeko elementua genuke, horren karakterizazio politikoa, soziologikoa zein kulturala garaian garaiko testuinguruak baldintzatuko baitu. Muga gizarte oren konfigurazio osagai garrantzizkoa dela kontuan izanik, Erdi Aroko gizarte aztertze ere alor garrantzitsua izango dugu (Ayala 2018: 2). Mugaldeak, kontzeptu gisara hartuaz, esanahi eta ulerkerak anitz bezain ezberdin izango ditu denbora aurrera joan ahala. Mugaren kontzeptuak izandako garapenari dagokionez, Frederick Jackson Turner (1893) estatubatuarra izango genuke elementu garrantzitsu. Honek, Amerikako Estatu Batuetako garaiko muga oinarri izanez, basakeria eta zibilizazioaren arteko talka gune gisara ulertuko du muga, zeinaren bitartez indibidualismo eta bide beretik demokrazia zein nazionalismoa garatuko diren¹. Modu batez edo bestez, mugarekiko ikuspegi hori hegemonikoa izango da urte luzez, XIX. mende amaieratik XX. mende erdialdera arte.

Mugari loturiko historiografiarekin jarraituz, XX. mendeko 80ko hamarkadatik aurrera mugarekiko teorizazio sakon bezain anitza eramango da aurrera Turnerrek irekitako bideari jarraiki. Historiografia aurrerakoia parte liratezke, besteak beste, Abulafia eta Berend. Bi horiek Erdi Aroko muga islamiarrari buruz hainbat ideia esanguratsu jorratu zituzten, zeinak nire marko teorikoaren oinarri liratezken. Lehenik, mugen hedapenari helduz, Abulafia eta Berend-ek adierazi bezala muga gune edo eskualde bezala sailkatzea litzateke egokiena. Ideia hori egungo Nazio-Estatuen ideietatik urrun egonik; eta hortaz, horietan eman ohi diren muga-lerroen presentzia bazterrean utziz. Azken finean, muga-linealen orokortzea azken mendeetako kontua baitugu² (Abulafia & Berend 2002: XI-XIII).

Bigarrenik, garai haietako lerro mugen presentzia eza aipatu ondoren, garrantzitsua litzateke muga kultura ezberdinen arteko harreman eta kontaktu etengabea eman ohi zen gune gisara ulertzea. Mugan liskarrez gain harreman baketsuak ere gauzatuko zirelarik. Azken ideia honek, gizarte ezberdinen arteko harremanaren presentziak eta horrekin letorken

¹Turnerrek haren teoria defendatzeko estatubatuar eta Antzinateko greziar biztanleriaren arteko alderatze interesgarri bat egin zuen: *“What the Mediterranean Sea was to the Greeks, breaking the bond of custom, offering new experiences, calling out new institutios and activities, that, and more, the ever retreating frontier has been to the United States...”* (Turner 1893: 9).

²Berendek kontuan hartuko du posible litzatekeela lerro mugaren agerpena XIII. mendeko Iberiar penintsulan eman izana, adieraziko dituen hiru elementuak tarteko: biztanleria kontzentrazio handia zegoen guneetan izandako kultura ezberdinen arteko harreman iraunkorra, muga materialaren (eremu gotortuen) presentzia, eta mugak hegoaldera hedatzearen aldeko ideologia (Abulafia & Berend 2002: XIII).

elkartruke kulturalak, garrantzi handia izango du Iberiar penintsulako historiografian, bertan kokatu baitzen mende luzez Mendebaldeko gizarte kristau eta Ekialdeko gizarte islamiarraren arteko muga, kristautasunaren eta Islamaren arteko dialektika gune garrantzitsua izango delarik penintsula (Abulafia & Berend 2002: XI). Erdi Aroko muga islamiarretan garatuko zen errealitate berri zein bereizgarri hura izendatzeko kontzeptu berri bat izango da erabilia, *tagr*³ (Chalmeta 1991: 16).

Abulafiarekin jarraituz, nabarmentzekoa litzateke hark Erdi Aroko mugaz hitz egitean mahaigaineratutakoa. Hark, muga eremu fisiko-administratiboaz gain ikuspuntu ezberdinetatik ulertzea posible dela adierazi zuen, muga ulertzeko bide berriak irekiz. Batez ere aipagarriak litzaizkiguke horietatik hiru: lehenik muga politikoak, horiek aldaerak izan ohi zituztelarik, oso populazioa gune handiak eta biziki zehaztuak izatetik biztanleria gutxidun lur zabal eta zehaztu gabeak izateraino. Betiere aurretik aipatu bezala, mapako lerro deifinituetatik at leudeke garaiko muga politikoak. Bigarrenik, muga kulturalak genituzke, kultura aniztasuna periferietaz gain barnealdean ere izanik. Erdi Aroan gainera mikrogizarteen presentzia ugaria ere izango genuke (euskaldunena adibide argi), eta mundu islamiarrean kokatuko zen heterogeneotasun eta aniztasun ugariena (gune urbanizatuagoen presentziaz gain merkataritza eta migrazio kopuru altuena eremu honetan kokaturik). Hirugarrenik, Erdi Aroko muga erlijiosoak genituzke. Erdi Aroko talde erlijioso nagusiak (musulmanak, kristauak eta juduak) ez ziren berdin tratatuak izango mundu islamiarrean edo mundu kristauan. Eremu islamiarrean *ḍimmī*-en⁴ presentzia bermatuta zegoen. Testuinguru erlijioso hori posible izango litzateke, eremu kristauean ez bezala, *dār al-Islām* gisara ezagun dugun eremuan (hortaz, baita muga islamiarrean) komunitate kristau zein juduak onartuak izango baitira. Guzti horiek *umma*-ren (komunitate Islamiarraren) parte izango dira gainera, betiere talde erlijiosoen arteko erlazioak asimetrikoak izanik, *ḡizya*-ren⁵ ordainketa tarteko (Viguera 1981:44). Bestalde, Iberiar penintsulako gizarte kristaura begiratzuz musulman zein

³*Ṭagr* (pluralean *ṭugūr*): Islama nagusi zen eremuek gune ez-musulmanekin izan ohi zuten mugako eremua izendatzeko erabilitako kontzeptua. Al-Andalus-en hiru *ṭagr* izan ziren: *al-Ṭagr al-A'la*, Mugalde Goiena; *al-Ṭagr al-Awsat*, Erdialdeko Mugaldea; eta *al-Ṭagr al-Adnā*, Behealdeko Mugaldea (Maillo 1996: 245-246).

⁴ *Ḍimmī*: Herrialde islamiarretako gizatalde ez-musulmanei (kristau edota juduei) zeritzen. *ʿAhd al-ḍimma* (babes ituna) bide, musulmanak ez izanda ere lurralde haietan bizi zitezkelarik horien ohitura zein erlijioarekin aurrera jarraituz. Betiere, horiei aldarrikatuak zitzaizkien eskubideen trukean aginte islamiarra onartu eta hark ezarritako zergak ordainduko zituzten (Maillo 1996: 21).

⁵ *Ḡizya*: Ez-musulmanek aginte musulmana zegoen eremuetan ordaindu behar izaten zuten zerga. Zerga hura Islamaren lurretan (*dār al-Islām*-ean) Islamean sinestu gabe bizitzen jarraitzeko eskubidea ordaintzeko izan ohi zen. Zerga ordainketa hura banakakoek baino kolektiboek eramango lukete aurrera (Maillo 1996: 265-266).

juduak lehenik baztertuak (*judería* zein *morería* delakoetan) eta ondoren kanporatuak izango ziren, judu zein musulmanen esperientzia ezberdina izan bazen ere biek bukatuko zutelarik mundu kristautik at (Abulafia & Berend 2002: 6-33).

Guztia horrela, Turner-en definizioa alde batera utziz, Erdi Aroko muga mapako lerro gisara definitzea saihestu eta kultura ezberdineko herrien arteko harreman eta kontaktua eman ohi zen gune edo eskualde bezala ulertu beharko genuke. Betiere kontuan izanik muga ikuspuntu fisiko-politikotik at ere uler daitekeela, besteak beste ikuspuntu erlijioso-kulturala kontuan izanda, bide horretatik mugaren presentzia periferiaz gain barnealdean ere kokatu genezake.

Erdi Aroko mugaren definizio zein hausnarpen prozesua aurrera eramanez, horri oso lotua dagoen Erdi Aroko mugako gizartearen ideia izango dugu jorratzen hurrengoan, hori mugetako herri ezberdinen arteko kontaktu handiaren ideiarekin oso lotua egonik. Mugetako gizarteak, oposizio egoeran zeuden komunitate ezberdinak izatetik urrun, etnia eta erlijio anitzdun taldeen mosaikoak liratzeko (Eger 2005: 3). Aipatua izan den gizarte eredu berezi hau guda eta bakearen arteko dualitatean eratuko da, militarizazio maila altua izango duen elementu garrantzitsutzat. Herri horietan askatasun eta bide beretik dinamikotasun gehiago egon ohi zen, mugetako gizartearen leialtasun ugariak eta bide beretik zatituagoa baitzen. Bere eragina izango zuen baita muga ugari autoritate zentralaren gobernantza zeharkakoa izateak, gobernantza zuzena baino ordezkariak aginduko zuelarik gune horietan. Hori horrela, eremu hauetan militarizazio eta dinamikotasuna present izango zen. Bestalde, multikulturalitateak ere paper esanguratsua gauzatuko zuen; hizkuntza, erlijio, ohitura... kultura ezberdina zuten herrien arteko kontaktuek (merkataritzak, negozioek...) akulturazioa eta bide horretatik erlijio sinkretismoa ekarriko baitzuten harekin. Gizarte eredu ezberdin horien adibide liratzeko Erdi Aroko gizarte musulman eta kristauaren arteko mugan kokatutako herriak, bai Anatoliako penintsulan bai Iberiar penintsulan (Abulafia & Berend 2002: XI-XII).

2. Anatoliar penintsulako mugaldea

Erdi Aroko mugari buruz jardun ostean, muga islamiarra aztertzen hastea genuke ondorengo pauso. Bide horretan, Manzanoren (1991) eskema erreproduktzioaren ideia kontuan izanik, Erdi Aroan izandako Anatoliar penintsulako arabiar-bizantziar muga genuke lehenik aztergai. Arabiar-bizantziar muga hartan sortuko baita VII-IX. mendeetan zehar

hasieran aipaturiko Islamaren kanpo mugako eremua definitzeko erabiliko den *ṭagr* (pluralean *ṭugūr*) kontzeptu politiko-militarra (Bonner 1994: 17-18).

Kontzeptu hura ulertzeko bidean, ordea, teoria zein eztabaida ugari izan dira. Horien artean genuke Michael Bonner historialariaren proposamena. Honek *ṭugūr* eremuak hobe ulertu nahian kontzeptuaren sorkuntza eremua litzateken Anatoliako penintsulara zuzendu zuen begirada. Eremu haietan *Ṭugūr-ʿAwāšim* sistema bikoitza zegoen present, hura VII. mendetik, omeiatarren kalifalditik, garatzen joandako antolatze ereduia izanik Bonnerren ustetan. Sistema bikoitz hartan *ṭugūr*-a arerioaren aurrean kokatutako eta gotorlekuz osaturiko eremuak osatuko luke, zeinetan mugako agintarien indarra nabarmena zen eta ordezkari kalifalak izango zuen gune horren agintea (Bonner 1994:17-18). Anatoliako muga izandako botere zentralaren zeharkako presentzia al-Ṭabarī-k (h923) utzitako idazkietan ere aurki genezake:

“The Commander of the Faithful Harūn al-Rashīd has written out as a contract of appointment to Harthamah b. A'yan when he appointed him governor over the frontier region Khurasān, its administrative dependencies and its land tax.” (TR: 274).

Lehen lerroa izango litzatekeen *ṭugūr*-etik barrurantz kokatuko zen, oster, *al-ʿAwāšim*. Azken horrek bigarren lerroko eremua osatuko luke, gotorlekuekin osatutako gunea litzateke hau ere, trinkoagoa ordea. Bigarren lerroko eremu hau, *ṭugūr* eta barne probintzien arteko kuxin-eremu gisara ulertu beharko genuke, eremu horrek *ṭugūr*-arekin batera osatuko zuen aurretik mahaigaineratutako sistema bikoitz hura, nahiz eta gerora *ṭugūr* gisara identifikatuko ziren bi eremu horiek⁶. *Ṭugūr* barnean bi azpi eremu definituko zituzten muga alboko bi probintziek (*Syria* eta *ʿYazīra*-k): *Ṭugūr Syria* eta *Ṭugūr ʿYazīra* (Bonner 1994: 17-22).

Bonnerren adierazpen horiekin Anatolian kokatutako islamiar mugarekiko zenbait ideia nagusi har genitzake: alde batetik, *ṭugūr* guneetan egon ohi zen militarizazio eta

⁶Bonner-ek (1994, 18-20) haren lanean Harūn al-Rašīd (h809) kalifa ʿabbāstarra aipatuko du. Hark *ṭugūr* eremua ezabatu nahi eta muga osoa barnean hartuko zuen probintzia (*al-ʿAwāšim*) eratu nahi izan baitzuen, zeukan eraginkortasuna indartu eta mugako agintarien indarra ahultze aldera: *“It was then that Harūn, in the first year of his reign, created a new frontier district called “al-ʿAwāšim”, independent of the other provinces of the old Umayyad North...creation of the Awasim seems therefore to have had two goals: first, to break up the old conglomeration of the Umayyad North, thereby limiting the great barons...”*. Hark, ordea, kale egin eta mugako indarrek botere nabarmen izaten jarraituko zuten *ṭugūr* deitua izango zen mugako lehen lerroko eremuan.

gotortze-maila handia, baita hango agintarien botere esanguratsua ere. Bide horretatik, *tugūr*-ak kontzeptu gisara hartutako formari dagokionez, muga islamiarrean modu progresiboan garatzen joan zen errealitate berri bat definitzeko aplikatutako kontzeptutzat hartu beharko genuke, aurretik egon ez zen egoera berria adierazteko kontzeptu berri baten beharrezana tarteko.

Bonner-en ideiei oso lotua izango dugu Asa Eger ere. Bigarren horrek gainera, iturri idatzi zein arkeologikoak aztertu eta horiek bide izanez, aditzera emango du herri eta erlijio ezberdineko komunitateen artean harreman baketsuak ere errealitate izan zirela mugako testuinguruan. Bide horretan, alde bizantziarreko mugan ez bezala, *tugūr* barnean komunitate kristauak bizi zirela mahaigaineratuko zuen Eger-ek, iturri arkeologikoak oinarri izanik batik bat⁷. Iturri idatziak bide ere, adierazia dago X. menderako *dār al-Islām*-aren (Lege Islamikoaren menpe lerrokatzen den lurraldearen) eta *dār al-Ḥarb*-aren (*dār al-Islām*-etik kanpo, nagusigo musulmana onartzen ez den eremuaren) lurralde banaketako dikotomiatik at bazela beste kontzeptu bat, *dār al-Ṣulḥ* edo *dār al-ʿAhd* (bake edota itunaren lurraldea). Azken horren baitan kokatuko liratezke komunitate ez-musulmanak *tugūr*-ean, modu autonomo eta *ḡihād*-etik⁸ babestuan, betiere aginte musulmana onartu eta tributua ordaintzearen truke.

Egerrek mahaigaineratutakoarekin ikusi genezake mugaldeko eremuan izandako erlijio indiferentzia nabarmena, eta bide hortatik ezaugarri erlijiosoen gainetik izandako interes ekonomiko eta politikoen gainjartzea. Horri gehitzeko, *tugūr* eremuko gotorlekuen kokapenean ere sakonduko du Eger-ek, horiek lerro defentsibo gisara kokatu baino lautada zein haranen barrenean edota merkataritza bideen inguruan izango zirela esanez. Bide horretatik, adieraziko du *tugūr*-ak ez zuela muga itxi bat osatzen, baizik eta mugaz gaindiko bideak oinarri izango zituen hiri irekien arteko merkataritza bide egonkortua. Errealitate hori irudikatzeko Eger-ek “The space between the teeth” (hortzen arteko tartea) metafora erabiliko du, mugetan kokatu ohi zen potentzien arteko harremantzeko zein merkataritzarako gune askea adieraztea xede (Eger 2012: 439-440).

⁷ Eger-ek zenbait aztarna arkeologiko aipatuko zituen: “*Preliminary results from recent excavations conducted in the last two years at Domuztepe in the lower Marash valley reveal a small Christian community living atop a tell. The community would have been in close proximity to the Islamic settlement at Mar`ash.*” (Eger 2005: 2).

⁸ *ḡihād* hitzaren atzean zenbait kontzeptu anitz bezain ezberdin izkutatzen diren heinean, Eger-ek haren lanean egin bezala, lan honetan ere *ḡihād*-a Islamaren aldeko borroka armatu gisara izango da erabilia. Gai honi buruz ikus García Sanjuán (2020).

Hitz gutxitan, Bonnerrek mugaldeko militarizazio eta agintarien botere nabarmena azpimarratu zuen heinean, Egerrek militarizazioaren garrantzia bigarren mailakotzat sailkatuko du (batik bat gune defentsiboen teoria baztertuz). Bide horretatik, goian aipatu bezala muga harremantze-gune gisara lerrokatuko du, *dār al-Şulh*-a erakusle, eremu horietan izandako aniztasun erlijiosoa eta multikulturalitatea zein mugaz gaindiko merkataritzaren garrantzia nabarmendurik. Azken ideia horiek bide zilegi litzateke *tugūr*-a gune heterogeneo eta komertzial gisara sailkatzea.

Bonner eta Eger alde batera utziz, Eduardo Manzanok aurrera eramandako zenbait hausnarpen genituzke ondoren aztergai, batez ere hark jorratutako hitzen azterketa etimologikoa. Horrek, mugaren ideia osotuago bat izatea helburu eta iturri idatziak tarteko, besteak beste bizantziarrek erabilitako *kleisourai* izena aztertu zuen. Grezieraz “pasabide” edota “haitzarte” esan nahiko zuen hitz hura Asia Txikiko muga eremua izendatzeko erabili ohi zen, baita maiz bizantziar eremutik at kalifa-herriko mugako lurak izendatzeko ere⁹. Bide horretatik, arabierazko *darb* hitza ere mahaigaineratuko du Manzanok, muga adierazteko erabiliko dena eta bide beretik “ate”, “bide” edota “pasabide” zentzua izango duena. Bi hitz horiek tarteko, Asia Txikiko gune menditsuak kontuan izanik, mugak mendien arteko pasabide eta irekidura gisara ulertuak izan zirela ondorioztatuko zuen Manzanok (1991: 34-36) Horrekin mugetako dinamikotasuna zein mugaz gaindiko harremanen presentzia azpimarratuko zuelarik.

Ikusiak ikusirik, Anatoliako eremuan kokatuko zen muga islamiarrarekiko interpretazioak Erdi Aroko mugaren teorizazio prozesuaren besteko anitz bezain ezberdinak izango direla esatea zilegi genuke. Goian adierazitako ideia ezberdinak gogoan, ikusi genezake nola gauzatuko den alor honetan ere izugarritzko teorizazio garapen progresiboa. Teorizazio progresibo hartan lehen adierazpenek mugarekiko ikuspegi guztiz militarra eta polarizatua izango dutela ikusgai dugu. Azken hamarkadetan, ordea, izandako mugaz gaindiko harreman baketsuen zein merkataritzaren presentzia azpimarratuko da, aurretik mugak oposizio eta tentsio gune gisara sailkatuak izan baziren ere, gerora merkataritza gune garrantzitsu eta eremu heterogeneo zein multikultural gisara ere ulertzen hasiko direlarik.

Nire aburuz gainera, askotan kontrakoa adierazi bada ere, aipatuak aipaturik Anatoliako muga gune konplexutzat sailkatzea zilegi litzateke, bai sozio-kulturalki bai politiko-administratiboki. Sozio-kulturalki, aitzinean aipaturiko herri ezberdinen presentzia

⁹Manzanok (1991: 35) ideia hori defendatzeko X. mendeko Konstantino Porfirogeneta-k egindako “kleisourai” hitzaren erabilpenaren adibidea adierazten du, zeinak hitz hori *tugūr* eremuaren baitan kokaturiko Mesopotamiako Romanopolis eta Chanzit guneak aipatzeko erabiliko duen.

handia bide gune heterogeneoak izango baitira etniko zein erlijiosioki. Politiko-administratiboki ere gune horietako errealitatea konplexua litzateke, goian adierazitako helburu militar eta ekonomikoak oinarri mugako eremuan estrategikoki pentsatutako antolaketa progresiboa eman izango zela pentsatu genezake eta. Muga islamiarra gainera, ez genuke ausazkotasuna nagusi izandako eremu gisara ulertu behar, atalaren hasieran Manzanoren adierazpena kontuan izanik, al-Andaluseko *tugūr* eremuak Anatoliako eskemak hartuko baititu (Manzano 1991: 45). Hori jakinda muga islamiarrean inprobisazioa hegemonikoa izan zenaren ideia baztertzea zilegi genuke, *tagr*-a konplexutasun maila handiko eremu planifikatutzat ulerturik.

3. Iberiar penintsulako Mugalde Goiena


3.1. Dār al-Islām

Dār al-Islām-ak al-Andaluseko Mugalde Goienean izandako ezaugarrietan sakontzen hasteko, gogora ekarri beharko genuke Ekialdean sortu eta Bizantziar Inperioarekin mugan zeuden lurraldeak izendatzeko erabiliko den *tagr* kontzeptua. Izendapen hura al-Andalusen ere berrerabilia izango baita iparraldeko lurralde kristauekin muga egiten zuten eremuak izendatzeko. *Tagr* kontzeptuaren erreproduzio erakusle genituzke garaiko zenbait iturri idatzi: alde batetik, Qudāma ibn Yâfar (h948) geografoa, zeinak iparraldeko Siria eta Mesopotamiako *tugūr*-az hitz egin ostean, al-Andalusen ere emango den izendapenaren berrerabilpena aipatuko digun. Beste aldetik, mende batzuk geroago Abū l-Fiḍāʿ (h1331) geografoa izango genuke, zeinak *tugūr*-aren jatorrizko erabilera Siriako anatoliar muga definitzekoa izan zela adierazi ostean, kontzeptu hura al-Andalusen eta baita Transoxian (Asia Erdialdeko lurretan) kokatutako mugak izendatzeko ere erabilia izan zela aipatuko duen (Manzano 1991: 44-45). Bide horretatik, Manzanok mahaigaineratutako erreproduzioaren teoria oinarri, al-Andaluseko Mugalde Goienean Anatoliako mugan present zeuden ezaugarri ugari errepikatuko direla arrazoituko da ondorengo atalean.

Al-Andalus-i buruz hitz egiten hasteko, erreinu kristauekin izandako mugaren barnean ipar-ekialdeko muga-eremua izango genuke garrantzizkoena, hura *al-Tagr al-Aʿlā* (Mugalde Goiena) edota *al-Tagr al-Akbar* (Mugalde Nagusia) gisara izango zelarik ezaguna (Manzano 1991: 47). Ebroko bailaran barrera hedatuko zen mugalde hura al-Andalus barnean botere zentraletik urrutien kokatzen zen gunea litzateke (MQII: 117). Geografikoki Ebroko bailarak komunikabide oparoa eskainiko zion eta ipar-ekialdean

zeuden Pirinioek muga natural gisara jardungo zuten mendiez bestaldera kokatuko ziren herri kristauekiko, Anatoliako penintsulan Taurus mendilerroarekin gertatu bezala (Manzano 1991: 47-48, 51).

Eremu geografiko horretan kokatuko ziren hiriei dagokienez, gizarte islamiarra antolatzekeo maneran urbanizazioak izandako garrantzia tarteko, al-Andaluseko Goi Mugan konkista islamiarrarekin batera hirien garapen nabarmena gauzatuko zen. Mende horietako garrantzi sozio-ekonomiko politikoa kontuan, *al-Ṭagr al-Aʿlā*-ko (Mugalde Goieneko) gunehiritar bereizgarrienak Tarazona, Huesca, Tuter eta bereziki Zaragoza genituzke (Corral 1987: 26-28). Ebro bailarako kokapen nagusiak ondorengo mapan ikusgai:



1. Irudia: al-Andaluseko *al-Ṭagr al-Aʿlā*, al-ʿUḍrī-k aipaturiko *ṭagr*-eko kokapenak eta erromatar garaiko galtzadak nabarmendurik (Lorenzo 2020: 13).

Bide horretatik eta al-ʿUḍrī (h1085) geografo andalustarraren hitzei jarraituz, Zaragoza Mugalde Goieneko metropolitizat har genezake, Ebroren ertzean kokatutako hiri hau izango baita ekonomikoki zein politikoki nagusi mugako eremu honetan (TA: 456). Zaragozaren nagusitasuna aldarrikatzeko ondorengoak idatziko zituen al-ʿUḍrī-k egundaino iritsi diren idazkietan:

“Zaragoza es la ciudad que tiene mejor suelo y la más abundante en frutales. Sus frutos son de inmejorable calidad” (TA: 456).

“La ciudad de Zaragoza, es la que ocupa la posición central de las ciudades de la Marca, y es puerta de todas las rutas...”(TA: 460).

Hiri horien agintea eskuratzeko lehian jardungo dute mugako klase sozial agintaria osatuko duten tokian tokiko leinuek. Ondoren garatuko dugun bezala, leinu horiek jatorri etniko ezberdindunak izateaz gain luzarorako botererik izan ez eta elkarren arteko suplantazio-prozesuak gauzatuko dituzte. Mugalde Goienean hiru leinu nagusituko ziren agintea eskuratzeko lehian: Banū Qasī leinu muladī-a eta Banū Tuŷīb leinu arabiarra (Lorenzo 2010: 342-344).

Geografia, hiri zein leinuei buruzko zenbait datu erabilgarri ostean, Mugalde Goienaren inguruko ikuspegi integral bat lortzea xede, lehenik Ebroko Haranean izandako mugako *dār al-Islām*-eko egoera politiko-administratiboan sakonduko dugu. Ondoren, hango errealitate sozio-kulturala aztertzeari ekingo diogu. Alor horiei buruz hitz egin ostean, adibideak tarteko mahaigaineratutako elementuon zilegitasuna lortzea xede, mugako leinu nagusi bi aztertuko ditugu. Azkenik, *dār al-Islām*-a garatu ostean, Mugalde Goieneko *dār al-Şulḥ*-ari utziko diogu tartea, horren inguruko hausnarketak plazaratuz eta kontzeptu hark Mugalde Goieneko errealitatean izango duen garrantzia kontuan hartuz.

3.1.1. Alor politiko-administratiboa

Egitura politiko-administratiboez hitz egiten hasteko, Anatolian bezala al-Andalusen ere mugako eremuko artikulazio elementu bereizgarriena *ṭagr* deituriko eremu administratiboa genuke. *Al-Ṭagr al-Aʿlā* edo Goialdeko Muga delakoa, Ekialdeko mugako eskemari jarraiki hiriburutik (kasu honetan Kordobatik) zuzendutako egitura administratibo piramidalaren baitan ulertu behar dugu. Anatolian bezala Iberiar penintsulako mugako gune horiek ere *dār al-Islām*-aren hedapenaren muturra osatuko lukete, mugakideak izanik aginte ez-musulmaneko guneekin. Gehitzeko, gune horietan emirrak zehaztutako ordezkariak zuen agintea mugaldean, *qāʿid*-ak; gune horiek ere beraz, goian aipatu bezala, autoritate zentralaren gobernantza zeharkakoa izango zuten. Gainera, bizantziarrekin izandako mugaren gisara, Mugalde Goieneko agintariei ere autoritate osoa onartu ohi zitzaien, Chalmetaren ustez horiek *dār al-Islām*-a babesteko funtzio nagusia zen *ŷihād*-a (ez sinistunen aurkako guda) aurrera eramaten berebiziko garrantzia izango zutelako izango litzateke (Chalmeta 1991: 16-19).

Al-Andaluseko Mugalde Goienean izandako errealitate politiko-administratiboko instituzio nagusiak garatu ostean, horien inguruan izandako interpretazio ezberdinei helduz, hausnarpen ezberdin zein kontrajarriak izango ditugu irakurgai. Chalmetak mugako agintaritza-izendapenak leialtasunaren trukean eginiko tokiko “autonomia” edo “jaurgoen” aitorpen gisara ulertuko ditu. Gainera, Kordobako Emirrak haren autoritate osoa transmititzen zuen izendapen horiekin zuen helburu nagusia aurretik aipatu bezala *dār al-Islām*-a babestu eta *yihād*-a egitea zirela jakinik, haren ustetan zilegi litzateke adieraztea Anatolian bezala al-Andaluseko mugako eremu hauetan ere autonomia politiko esanguratsua egoteaz gain militarizazio nabarmena ere bazegoela. Hala, eremu horietako agintarien autonomia-maila esanguratsua azpimarratuz muga islamiarrean izandako feudalizazio maila nabarmena aldarrikatuko du (Chalmeta 1991: 18-19). Honekin amankomunean hainbat ideia izan zituen Manzanok, zeinak gainera adieraziko zuen botere omeiarrekin mugako agintariek eginiko hitzarmenak, *mawlā*-ak¹⁰, erlazio klientelar zein leialtasunezkoetan oinarritzen zirela (Manzano 1991: 15).

Beste alde batetik, ostera, baieztapen horiekiko guztiz kontrara izango genuke, besteak beste, Guichard. Hark, bisigodoen antolakuntza sozio-politiko aurre-feudala izan zela onartuko badu ere, al-Andalusen eraketarekin Estatuaren papera indartu eta presio fiskala gogortu ziren heinean eremu hura erlazio klientelarretatik urrundu eta lur horietan sistema tributarioa hedatu zela adieraziko du. Gizarte tributarioaren eragile nagusia agintariek ezarri nahi izango zuten antolakuntza politiko-erlijioso islamikoa izango zen; horren bitartez, goian esan bezala gogorragoa zen zerga-sistema islamikoa ezarri eta autoritate zentralak indarra lortuko zuen moneta-igortze eta zergen hartzaile gisara jardunaz. Gizarte tributarioaren ideia oinarri, al-Andaluseko eremu (baita Mugaldean ere) leinu nagusiek lurren jabetza nabarmenik izan ez eta hein handi batean horiek ere zerga-bilketatik biziko zirela ondorioztatuko du Guichard-ek. Hori horrela, botere zentrala, sistema tributarioa tarteko, hiri zein nekazal komunitateen gain kokatuko zen, eskema feudaletik urrun. Guichard-ek beraz, Chalmetaren kontrara, bisigodoen garaitik al-Andaluseko garaira bitartean jarraipen politiko-administratiborik egon ez eta Ekialdetik ekarritako eskemen baitan apurketa nabarmena egon zela adieraziko du (Guichard 1995: 65-66).

¹⁰*Mawlā* (pluralean *māwālī*) kontzeptua, konkista ostean Islamera igaro eta agintari zein tribu arabiarrekin bezero ituna aurrera eraman zuten musulan berri etnikoki ez-arabiarrek izendatzeko erabilia izan zen. Al-Andalusen *muwalladūn* edota *musāllima* izendapenak izango ziren hedatuagoak (Maillo 1996: 152-153). Itun horretan bezeroaren babesletzat lerrokatuko den instituzioari *wala* deitura emango zaio (Fierro 1995: 50).

Teorizazio ildo nagusi bi horietatik at, jarraikortasun zein apurketa ereduengatik inguruan indarrean egondako eztabaida teoriko horietatik irten nahian Negre-k pentsamolde aurrerakoiago batetik adierazi nahiko du eztabaida metodologikoetatik at badela modu objetiboago batean informazioa lortzeko biderik, eta bide hori ikerketa arkeologikoaren baitan kokatzen dela. Garai horietatik gaur egunera bitartean batez ere iturri idatziak mantendu badira ere, arkeologiaren bidea ere iturri erabilgarri zein beharrezkotzat sailkatuko baitu. Ondorengoa adieraziko du Negre-k: *“La divulgació de les recerques produïdes des del món de l’Arqueologia ha de ser un dels factors clau en el futur de la nostra disciplina per no acabar a l’interior d’un cercle viciós de producció científica elitista que únicament interessa a l’Acadèmia i als que hi treballen dintre de l’àmbit d’investigació.”* (Negre 2013: 78-79). Bide horretatik, arkeologiaren garrantzia aipaturik esatekoa litzateke garaiko iturri idatziak aztertzean autoreen subjektibotasuna ere kontuan hartzea. Subjektibotasun hori bereziki mugako esparruan nabarmenduko zelarik, *ṭagr-a yihād*-a egin eta *dār al-Islām*-a defendatzeko gunezkat ulertua zen heinean berebiziko garrantzi ideologikoa hartu eta horren ondorioz guzti horren erantzule zen kalifaren papera goraiatzeko mugarekiko ikuspegi guztiz militar eta erlijiosoa azpimarratuko baita garaiko iturri idatzi askotan (Manzano 1991: 29, 36). Hori horrela, zilegi litzateke adieraztea iturri arkeologikoak beharrezkoak zaizkigula arlo militarreko gertakarien nolakoak zehaztu eta informazio urriagoa dugun beste arloetako informazio objektiboa eskuratzeko.

Guztia horrela, Mugalde Goieneko errealitate politiko zein administratiboaren inguruan izango diren interpretazioak anitz bezain kontrajarriak direla ikusgai, nire marko teorikoa Guichard-en ideiarekin baitan garatu diren interpretazioetan oinarrituko litzateke, zeinak adierazi zuen al-Andalusen eraketarekin batera konkista aurreko antolatze-egiturak eten eta Ekialdetik hartuak izango ziren eskema administratibo-politikoak finkatuak izango zirela Iberiar penintsulako eremu islamiarrean. Horretaz gain, nire ustetan Negreren hausnarpenei ere ez litzaieke garrantzirik kendu behar, garai haietako ikuspegi osotuago bat lortzera bidean Arkeologia iturri historiko gisara erabili beharra dagoelakoan bainago. Hala, mugako ezaugarri politiko-administratibo bereizgarriak eta horien gaineko interpretazioak jorratu ostean, elementu horiei oso lotua egongo den gizartearen ezaugarri sozial zein kulturalak aztertzea dagokigu egitekoetan hurrena.

3.1.2. Alor sozio-kulturala

Mugalde Goienean izandako ezaugarri sozial zein kulturaleri helduko diegun honetan, gogora ekarri beharko genuke aitzienan aipaturiko *'ahd al-dimma* (babes ituna)¹¹. Hori hala, *dār al-Islām*-ean izandako kristau zein juduen presentziarekin, Mugalde Goienean erlijio aniztasuna eta bide horretatik musulman zein ez-musulmanen arteko harremana eguneroko ogia izango zela adieraztea zilegi genuke (Safran 2013: 209). Ondoren aztertuko ditugun Banū Qasī leinuko adibideekin ere (hala nola Eneko Aritza kristauaren eta Mūsà ibn Mūsà muladiaren arteko anaitasuna) (TA: 469) zilegi genuke esatea mugaz gaindiko harremanak ere ohiko gauza izan zirela, hark bi aldeetara ekarriko luken eragin sozio-kulturala ahaztu gabe.

Horretaz gain, oker egingo genuke islamizazio-prozesua ahaztuko bagenu, erlijio ezberdinen arteko harreman sakona egongo zen errealitate horietan biztanleria ez-musulmanaren konbertsio progresiboa gauzatuko baitzen (Safran 2013: 18-19). Islamizazio prozesua hasieran hirietan nabarmenduko bazen ere sakon eragingo zuen gizarte osoan, XII. mende hasierarako Mugalde Goienera biztanleriaren ia gutzia musulmana izanik (Radoslalova 2018: 170, 172). Islamizazioarekin guztiz loturik (haren izaera jainkotiarra tarteko) etorko litzateke baita arabizazioa, alor erlijiosoarekin batera alor linguistikoak ere aldaketa handiak izango zituelarik hegemonia arabo-musulmaneko garai hauetan (Radoslalova 2018: 182). Kordobatik hain urrun zeuden mugako eremuetan ere arabiera nagusituko zen bai talde agintarietan bai herri xehean. Erlijio aniztasunaren bidetik mugako gizartean erabilitako hizkuntzak ere bat baino ugariagoak izango ziren, arabierarekin diglosian egongo zen tokiko erromantzea kasu (Radoslalova 2018: 175). Mugan mende batzuen joanean emango den erlijio eta hizkuntza aldaketa hark finean mugako gizartean pairatutako kultura apropiazioa, eta ondorioz akulturazioa adieraziko liguke.

Erljio zein hizkuntzaz gain etniari dagokionez, Goi Mugako esparru etnikoan ere heterogeneotasuna izango da nagusi. Mugan etnia ezberdinen presentzia egotearen eragile nagusia konkista genuke, hori dela eta tokiko etniatik ezberdintzen ziren taldeen etorrera gauzatuko baitzen. Azpimarragarriak genituzke jatorri berebere eta batez ere arabiarreko gizataldeen etorrera; bigarren horiek agintea izango bazuten ere kokagune berri zein

¹¹ Gaiari buruz ikus Maghen (2003).

besteengandik urrunduak eratzetik urrun tokiko biztaleen artean bizitzen hasiko zirelarik gainera (Radoslalova 2018: 168, 182).

Guzti hori kontuan, sozio-kulturalki Mugalde Goienean aniztasuna izango zen nagusi, islamizazio eta arabizazio prozesuen bitartekaritza tarteko akulturazio eztabaidaezina aurrera eramango zelarik mugako gizartean. Aurretik Mugalde Goienera lurretan nagusi izandako erlijio, hizkuntza zein etnietan Ekialdetik etorritako elementu arabiar-islamikoek eragin zuzen bezain zorrotza izango zuten, gune hartan multikulturalitatea zinez bizia izateraino.

3.1.3. Mugalde Goienera zenbait leinu

Mugalde Goienera gizarteak izandako ezaugarriak kontuan izanik, mugako agintariak osatzen zituzten leinuei buruzko informazioa izango da gune eta garai horretatik helduko zaigun informazio aberatsena, lehen mailako iturri idatziak leinu horien nondik norakoetan zein Kordobarekin izandako harremanetan zentratuko baitira batik batik. Hori horrela, aurretik muga definitzerakoan adierazitako ezaugarri politiko-administratibo zein sozio-kulturalak leinu horien partaideen eskutik ere ikusgai izango zaizkigula jakinik, mugako gizartearen parte ziren leinu zehatzen adibideetan bideratzea deritzot egokiena. Hasteko beraz, Banū Qasī leinu muladia izanik Mugalde Goienera leinu nagusienetako bat, eta jakinik horien inguruan badirela zenbait leinu mailako idatzi zein egungo interpretazio, leinu hori adibidetzat hartu eta hasieran adierazitako mugekiko ideia orokorrak adibide zehatzekin mahaigaineratuko dira ondorengo lerroetan. Horri jarraiki, bide berdina gauzatuko da Tuḡ̃ibtarren leinu arabiarrekin.

A. Banū Qasī leinua

Banū Qasī leinu muladiari helduz, beraz, hainbat gertaera ditugu jorratzeke. Leinu horren sorkuntzari dagokionez, garaiko informazio oso urria eta nahastua da. Kasio kondea hartu izan da leinu honen jatorritzat, horren inguruan hala nolako eztabaida ere egon zelarik. Cañada-ren (1980: 5-6) iritziz, garaik iturrietan aipatua den Kasio izenera gizona konde bisigodoa zen, zeina konkistarekin batera pribilegio eta posizio sozio-ekonomikoa mantentzea xede Omeiar dinastia kalifalaren *mawla* bihurtu eta Islamera bilakatuko zen, Banū Qasī-en etnia indigenadun leinu musulmanari hasiera emanaz. Manzanok (2013: 258-259) ere antzekoa adieraziko luke, leinu horren supremazia godoen garaitik zetorrela

defendatuko baitu, batik bat Ibn Ḥazm (h1064) eta Ibn Ḥayyān (h1075) bezalako garaiko idazleen lanen interpretazioa oinarri izanik. Godoen garaitik izandako jarraikortasunaren alde posizionatuko diren Cañada eta Manzanoren interpretazioen aurrean, Lorenzo zein Fierro-ren hausnarpenak genituzke. Lorenzok (2009: 179-180) adieraziko du leinuaren sortzailertzat hartua den Kasio konkista aurretik existitu bazen ere, horren boterea murrizta izan zela. Gehitzeko, haren ustez botere murrizta zuen aristokrazia lokaleko kide izateagatik lortuko luke Banū Qasī-en leinuak haren boterea mantentzea: “...su linaje, es decir, su patrimonio, resiste porque no despierta la ambición de los nuevos gobernantes.” (Lorenzo 2010: 114). Leinuaren botere hedapena, ostera, Islamiar komunitatearen parte izaten hasi eta Omeiarrekin eginiko *mawla* itunetik letorke (Lorenzo 2010: 114). Lorenzoren bidea jarraituko du Fierrok ere, leinu horren jaraikortasun eza azpimarraturik. Hark, gainera, Ibn Ḥarīṭ al-Juṣānī-ren (h971) *Ajbar al-fuqahāʿ, wa-l-muḥaddiṭīn* lana kontuan izanik Kasio kondearen existentzia bera zalantzan jarri eta memoria genealogikoaren baitan kutsu ideologikoa tarteko eratuko zenaren proposamena garatuko du (Fierro 2009: 181).

Banū Qasī leinuaren sorkuntzak eratutako eztabaidak alde batean utziz, leinu hartako pertsonaiarik aipagarrienetarikoa dugun Mūsà ibn Mūsà-ren (h862) ibilbidea oso adierazgarria genuke garaiko mugaz gairik harreman eta leialtasun aldakorren errealitatea ulertze aldera. Mūsà-k, ustezko Kasio kondearen birbilobak, obediencia adierazi zion emirra zen ʿAbd al-Raḥmān II.ari; Kordobarrak, ordea, Zaragoza eta Tuterako *wālī* (gobernadore) Kulayb leinuko ʿAbd Allāh eta Amir izendatzean (TA: 468-469). Horiek, Mūsà eta haren senideekiko izandako jarrera bortitza kausa, Mūsà-k emirrarekiko leialtasuna alde batera uztea eragingo zuen (MQII: 305). Hainbat gatazka urteren ostean, bake-itun zein errebolta ugari tarteko, berriz leial lerrotatuko da Mūsà ibn Mūsà, emirrari laguntza eskainiz. Bide horretan, Mūsà ibn Mūsà Tuteran zein Zaragozako *wali* izendatua izateaz gain Mugako gobernantza ere emango dio Muḥammad emirrak, nahiz eta gero mugako leialtasun eta lehiakortasun goraberatsuak tarteko kendua izango zaion azken izendapen hori (TA: 469-471). Leialtasun bateraturik ez zegoenaren adibide garbi genuke baita Mūsà ibn Mūsà-k gauzatuko zuen erreboltetako batean, 845ean, haren semea zen Lub al-Mūsà-k aita alde batera utzi eta emirraren aldean lerrotatu zenekoa (MQ II: 303). Horrelako aliantza eta errebolta adibideak ondorengo belaunaldietan ere errepikatuak izango direla jakinik, adibidea arautzat hartu eta zilegi dugu muga-eremua leialtasun aldakordun gune dinamiko eta zatitu bezala definitzea, leinu barnean ere askotan zatiketak egongo zirela ikusgai izanik. Hori guztia horrela, al-Andalus barnean mugako eremuetako

agintariak autoritate zentralarekiko erakutsitako leialtasun aldakor eta errebolta ugariak aipatu ostean, ondoriozta genezake Kordoba eta botere zentraletik nahiko aldendua zegoen Mugalde Goieneko eremuaren arteko harremana bake eta gatazkaren arteko dualitatean oinarritzen zela hein handi batean.

Goian aipatutako harreman eta leialtasun militarretaz gain, mugako banatze eremu imaginarioaren gainera erlazio familiarak ere gauzatuko dira, herri ezberdinen arteko erlazio zein heterogeneotasunaren isladatzat. Aurreko ildoari jarraituz eta Banū Qasī-ak mugaz bestalde aurrera eramandako harreman familiarretan sakonduz, adibide ugari genituzke aipatzeko: hala nola, goiko lerroetan adierazitako Mūsà ibn Mūsà eta Eneko Aritza-ren arteko anaitasuna, biak ama beraren seme izanik (TA: 469). Mūsà-ren seme Muṭarrif ibn Mūsà ere adibide genuke, hura Iruñako Antso-ren alaba zen Beraskita-rekin ezkonduko baitzen (Chalmeta 1991: 26). Banū Qasī leinuko zenbait alaba mugaz beste aldera ere ezkonduko ziren; hala nola, Awriya bint Lubb ibn Mūsà (Auria edo Oria gisara ezagunagoa) zeina Fortun Gartzreiz Iruñakoarekin ezkonduko zen (TA: 533). Aurreko hausnarpenen bidetik, mugako bi aldeetako herrien arteko leialtasun zein harreman militar eta familiarak ikusirik, hauteman genezake bi guneen artean mugak banandu baino sarritan zubi gisa jardun zuela. Mugaz gaindiko harreman eta leialtasunen testuinguru hura hobe uler daiteke kontuan izanik bietan zela nagusi mugak baldintzaturiko ideologia, administrazioa zein bizi sozio-ekonomiko bereizgarria.

B. Banū Tuṣṭib leinua

Banū Tuṣṭib, yemendar jatorriko leinu arabiarra litzateke, VIII. mendetik Mugalde Goienean ezarria (Guichard 1995: 56). Muḥammad I.a zen emirrak familia honetan jarriko du konfiantza Mugalde Goieneko Banū Qasī leinua neutralizatzeko (Lorenzo 2010: 222). Hori horrela, laguntzak¹² emateaz gain gerora aztertuko dugun bezala botere zentralaren errekonozimendua ere emango dio sarritan (MQII: 57). Leinu etnikoki arabiar hau ere, beste leinuen antzera Mugalde Goienean kokatuko den heinean, hango errealitate dinamiko eta aldakorrera moldatuko da. Mugako leinuen arteko gatazkak hain ohikoak ziren testuinguruan Tuṣṭibtarren leinuko kideek ere dinamika hura hartu eta lurralde ugari eskuratuko dituzte.

¹²Al-ʿUḍrī-ren esanei jarraituz (TA: 487), Kordobatik Tuṣṭibtarren leinuko kideei lurretaz gain dirua ere emango zaie: “...*imam Muhammad [I] en la Marca de Zaragoza, llamó este a los hijos de Abd al-Aziz al-Tuyibí, reconstruyó para ellos Calatayud.... restauró también Sumit, Daroca y Furtis, les encargó de combatir a los Banu Qasi, y les puso al frente de sus gentes, dándoles a cada uno un regalo de cien dinares en cada campaña*”.

Aurrekoaren adibide genuke Zaragozako gobernadorea izan zen Aḥmad ibn al-Barrà eta Tuḡyībtarren leinuko ʿAbd al-Raḥmān ibn ʿAbd al-ʿAzīz eta haren semea zen Muḥammad-en arteko gertakaria. Aita semeek Zaragozako gobernadoreari abilezia handiz iruzur egin eta Muḥammad Zaragozako gobernadorearen zaintzapean zela heriotza emango zion, 890an Tuḡyībtarren leinuaren eskuetara igaroaz Mugalde Goieneko hiri garrantzitsuena zen Zaragozako agintea (MQ II: 58-59). Orduan gainera Muḥammad-ek haren aitari hirian sartzen utzi ez eta gazteak ahalik eta bizkorren emirrari idatziko dio errekonozimendu bila, eta emirrak agintari izendatzea lortuko zuen 924an (TI: 129). Hala, Muḥammad ibn ʿAbd al-Raḥmān al-Tuḡyībī Zaragozako gobernadore izango zen haren heriotzera arte 924-925ean (TA: 487-489). Adibide horretan hainbat ideia ondoriozta genitzake: alde batetik, arabiar leinua ere mugako dinamikan sartu eta trikimailu zein azpijokoak eguneroko ogitzat zituztela ikus genezake. Bestetik, goian Banū Qasī-en nondik norakoen antzera, Tuḡyībtarren leinuan ere leinuko barne-zatiketak gauzatu zirela ondoriozta genezake, semeak aita Zaragozako gobernantzatik at utziko duen heinean.

Tuḡyībtarren leinuaren garapenean sakonduz, ondorengo urteetan mugako beste leinuen aurka borrokatuko zuen, Banū Qasī-en aurka batez ere. Azken horien botere zentro historikoa izandako Tuterako agintea ere Banū Tuḡyīb leinuaren menpean geldituko delarik X. mende hasieran (Lorenzo 2010:333). Mugaldean izango duten hedapena botere zentralaren babesa tarteko gauzatuko dute, baita mugako zenbait boteretsuren laguntzarekin ere, hala nola Huesca-ko agintaria eta Banū Qasī-en arerioa izandako Muḥammad al-Ṭawīl-ena. Hori horrela, X. menderako Mugalde Goieneko leinu boteretsuena izango zen Banū Tuḡyīb (Guichard 1995: 56), mugako leinu esanguratsuenak liratzek Banū Qasī zein Banū Sabrīṭ leinu muladiak Tuḡyībīek ordezkatu dituztelarik X. mende erdialderako (Lorenzo 2010: 335). Leinu arabiar hark emirrekiko erakutsitako leialtasuna tarteko mugan txertatua izango bada ere, aipatzekoa litzateke Ibn Ḥayyān-ek mugako beste leinuekin egin bezala, maiz Tuḡyībtarren leinua ere emirrekiko errebelde edota asaldatzaile gisara sailkatuko duela (Lorenzo 2010: 299). Hori horrela, leinu arabiar hau mugako beste leinu muladiakiko guztiz ezberdintzat irudikatzetik urrun; Banū Qasī zein mugako beste leinu boteretsuak bezala, norbere interes politikoak edozein leialtasunen gainetik izan zituen leinu gisara ulertu beharko genuke, mugan kokatu ziren heinean hango errealitatearekin bat egin eta bertako dinamikara egokituko zirelarik.

C. Leinuen gaineko ondorioak

Guztia horrela, Mugalde Goieneko ezaugarri nagusiak aipatu eta Banū Qasī leinuko zein Banū Tuŷīb leinuko adibideak arautzat hartuaz, Mugalde Goiena osotuko luketen *dār al-Islām* eremuaren muturreko lurretan hainbat ezaugarri bereizgarri genituzke azpimarratzeko. Alde batetik, nire aburuz mugako leinu agintarien baitan jazotako gertakariak bide, mugaldeko indarren dinamismo, leialtasun zein zatiketa anitzen presentzia bizia auzi aipagarri genuke. Botere zentrala Kordoban, Mugalde Goienetik urrun, kokatzen zen heinean, emirraren agintea malguagoa izan eta autonomia hartan tokiko familien jardunak zehaztuko baitzuen modu esanguratsuan mugako botere banaketa eta horri lotuta legoken jardun soziala. Goiko adibideetan genuke ikusgai hura, Mūsà ibn Mūsà zein Muḥammad ibn ʿAbd al-Raḥmān al-Tuŷībī-ren jardunean¹³, goiko aginduetatik urrun leinuek horien jardun propioa eramango baitzuten aurrera gehienetan.

Bestalde, botere zentralarekiko leialtasun urruna aipatu badugu ere, nabarmentzekoa litzateke mugako leinuek legitimitate eskuratzeko halabeharrez emirraren errekonozimendua bilatu ohi zutela. Horren erakusle genuke Muḥammad ibn ʿAbd al-Raḥmān-ek eginikoa, Zaragoza hartzean lehen pausoa Kordobara mezua bidaltzea izango baitzen, emirrak Zaragozako gobernantza aitor ziezaion (TA: 488). Mugalde Goieneko leialtasun dinamiketan sakontzeari ekin eta harreman sozialak jardun politikoari oso lotuak leudekela kontuan izanez, ikusgai genuke mugako leinu agintariengan bazegoela botere zentralarekiko hala nolako jardun edo indar zentrifugoa. Goiko Banū Qasī-en adibideetan ikusgai den bezala, mugako leinuek horien interesen alde, askotan Kordobari muzin egin eta errebelatu izanaren testigantzak heldu baitzaizkigu. Indar zentrifugoen aurrean, ordea, indar zentripetoak ere present izango ziren garai hartako mugako jardunean; leinuen helburua garaiko sistemaren baitan gora egitea zen heinean, aurretik aipaturiko emirraren errekonozimendua helburu izango baitzuten legitimazioa lortze aldera. Hala, aurreko adibideetan oinarrituz Kordobako kontroletik aldentzeko grinari oso lotuta emirraren onarpena eskuratzeko nahia orokortua zela aitortzea zilegi genuke, emirra betiere mugako leinuen arteko gatazken gainetik kokatuko zela ondorioztatzea posible eginez. Leialtasunen

¹³Lehenak, Mūsà ibn Mūsà-k, besteak beste 846-847an Tudela erasotuko zuen. Bigarrenak, Muḥammad ibn ʿAbd al-Raḥmān-ek, aurretik esan bezala 890ean Zaragozari eraso egin eta haren agintea eskuratuko zuen (TA: 471, 488).

dinamikaren inguruan ateratako ondorio hauek, jardun politikoak gizarte konfigurazioan eta hala alor sozialean izandako eragina ulertzen lagunduko ligukete.

Mugalde Goieneko ezaugarri sozialek, leialtasunen dinamika bide, interes politikoeekin izan zuten lotura haundi bezain zuzena aipatu ostean, mugan izandako heterogeneotasun zein multikulturalitatea genuke nabarmentzeko gai. Horren adierazle, Banū Qasī leinuan aurretik aipaturiko mugaz gaindiko harreman familiarak genituzke alde batetik, konkista ostean yemendik etorriko zen Tuḡ̃btarren arabiar leinua bestetik (Guichard 1995: 56). Bi leinu horiek mugako gizartea mosaiko etnikotzat hartze ahalbidetu ligukete, lehenak iparraldeko eremu kristauarekin harremanak izan zirela ziurtatuko baitigu; bigarrenak, ostera, konkistarekin batera Ekialdetik etorriko ziren etnia arabiarreko leinuak mugaraino iritsiko zirela emango digu jakitera.

Heterogeneotasunaz hitz egitearekin batera etniaz gain erlijioa ere kontuan hartzeko elementua genuke. *Dār al-Islām* barneko muturreko eremu hauetan, Banū Qasī eta Aristen arteko hartu emanetan ikusi bezala mugaz bestaldeko eremu kristauarekin harremanak izateaz gain, lege Islamikoaren baitan erlijio ezberdinak batuko direla kontuan izanik erlijiosoki ere mugan aniztasun asko aurkituko genuke, erlijio sinbiosiaren ideia ere gomutan izanik. Sinbiosi hartan gauzatuko zen islamizazioa (eta hark ekarriko luken arabizazioa) ere kontuan hartzeko gauza genuke, Banū Qasī leinu etnikoki ez-arabiarra baina islamizatu zein arabizatua adibide izanik. Guzti hori horrela, Mugalde Goieneko ezaugarri etniko zein erlijiosoak buruan, bitarteko eremuko gizartea etnia eta erlijio anitzeko kaleidoskopio gisara irudikatu beharko genukeela deritzot, zeinetan odol zein jainko ezberdindun gizataldeak harreman etengabeen egongo ziren.

Aurretik aipatutako mugako leialtasunen dinamika konplexua zein mosaiko sozial etniko-kulturala, ordea, ez genuke ausazko elementu gisara irudikatu behar. Ezaugarri horiek, aitzinean elementu politiko-administratiboei buruz adierazi gisara, eskema zehatz bat jarraiki islamiar mugen ereduaren baitan garatutako errealitate gisara ulertu behar ditugu, mugako eskemaren erreprodukzio gisara. Aurretik mahigaineratu bezala, Anatoliako muga oinarri genukelarik Mugalde Goieneko errealitatea zehazte orduan (Manzano 1991: 45).

Bide horretatik, Anatoliako muga arabiar-bizantziarrean izandako ezaugarri politiko, administratibo, sozial zein kulturalak bezala, Asia Txikiko mugan present izandako *dār al-Ṣulḥ* eremua Iberiar penintsulako Mugalde Goienean ere present genuke. Horrela, Ekialdeko mugako ezaugarriak bere osotasunean ulertzen lagundu digun kontzeptu hark Mugalde Goieneko errealitatea hobe konprenitzen ere lagunduko liguke.

Hortaz ondorengo atalean Anatoliaren bidetik Goi Mugan ere *dār al-Ṣulḥ*-ak izan zuen presentziaren inguruko hausnarketak aditzera eman eta hark Iberiar penintsulako muga islamiarreko ikuspegia garatzeko orduan izango luken garrantzia jorratuko dugu.

3.2. *Dār al-Ṣulḥ*

Aurretik aipatutako *dār al-Ṣulḥ* edo *dār al-ʿAhd*-a kontzeptuari helduz, hura mundua zatitzeko ikuspegi islamiarra oinarritzen zen *dār al-Islām* eta *dār al-Ḥarb*-aren dikotomiatik at legoken bitarteko kategoria litzatekeela kontuan hartu beharko genuke. *Dār al-Ṣulḥ*-aren baitan gune ez-musulmanak kokatuko liritezke, zeinak *ʿaqd* (itun) baten bitartez emirraren *amān*¹⁴-a eskuratu eta trukean urteroko zerga edota *ʿizya* (komunitate musulmanaren barnean ez-musulmanek ordaindu behar zuten zerga) ordaindu behar izaten zuten. *Dār al-Ṣulḥ*-a tarteko, Iberiar penintsula goialdean mugako lurralde ez-musulman ugari lerrokatu ziren gobernu andalusiaren menpean, gune kristauek zergen ordainetan botere musulmanekiko harreman baketsua eskuratuko zutelarik (Herrero 2012: 60,72).

Mugalde Goieneko inguruetara ikusmira jarriz ere, hura mugako eremua den heinean present izango genuke *dār al-Islām* eta *dār al-Ḥarb*-aren bitarteko kategoria hura. Adibideei men eginaz, egungo Araba zein Nafarroako lur ugari genituzke garai haietan *dār al-Ṣulḥ* eremutzat sailkatuak, eremu musulman izan ez baziren ere hainbatetan aginte musulmanaren menpean eta hortaz komunitate musulmanaren barnean egongo ziren eta. Hala, baieztapen horiek zilegi liritezke ondorengo adibideak kontuan izanez gero.

Lehenik, adibideei kronologikoki ekinez *bilād Alaba* izendatua izango zen Araba inguruetako lurak genituzke. Eremu honi buruz iturriek datu zehatzik ematen ez badute ere, badugu Ibn ʿIḍārī (h. XIII. mendea) idazle arabiarrek eginiko Arabari buruzko aipamena, zeinak adieraziko duen 767an *ʿizya* ordaindu izan zela eremu hartan (Lorenzo & Pastor 2011:66). Bigarrenik, Araba aldeko eremutik *bilād al-Baskūns* edo *bilād Banbalūna* deituriko eremuari (garaiko Iruña eta inguruetako lurrei) helduaz, Yanaqu ibn Wanīqu-ren (Eneko Aritza-ren) jarduna genuke aztergai. Hark 843an ʿAbd al-Raḥmān II.ari *ʿizya* ordainketa egin zionaren testigantza heldu zaigu¹⁵, bide horretatik Iruñako eremuan

¹⁴ *Amān*: Babes-zina litzateke, agintari musulmanek eman izan zieten aurkari musulman edota kristauei. Horren baitan kokatuko litzateke *amān*-a eman duen agintariaren menpeko lurren baitan ibiltzeko askatasuna. Adierazpen hura iraungi egiten zen (orokorrean urte betean), ohikoa zen horien berriztapena (Maíllo 1996: 35).

¹⁵ Garaiko iturria den al-ʿUḍrī-k aipatuko du nola Yanaqu ibn Wanniqu-k (Eneko Aritza-k) garaiko Kordobako emirra zen ʿAbd al-Raḥmān II.arekin *ʿaqd*-a (ituna) zehaztu zuela; zeinetan *amān*-a eman eta eremuaren

Kordobaren (hala, baita Islamaren) subiranotza onartua izan zela ondoriozta genezake. Horrela, al-Andaluseko sistemaren orbitan kokatu beharko genukelarik eremu kristau hau, *dār al-Ḥarb*-etik kanpo eta era berean aginte kristaua zuen heinean *dār al-Islām*-etik kanpo ere, *dār al-Ṣulḥ*-aren (itunaren eremuaren) baitan beraz (Lorenzo & Pastor 2011:63-66).

Gainera, konkista osteko lehen mende horietako informazio idatzi urriaz gain, eremu horietara Kordobatik eginiko kanpaina ugariak ere zer esan ugari izango lukete gune hura *dār al-Ṣulḥ* gisara sailkatzeko orduan, aurreko adibideak garai haietan arau izan zirela erakutsiz. *Al-ṣayfa*-k,¹⁶ Ibn Ḥayyān eta al-ʿUḍrī-ren¹⁷ aipamenei begira, oso ohikoak izan eta lur eremua eskuratu baino harrapakinak lortzeko egin ohi zirela ikusgai genuke. Bide horretatik, ondoriozta genezake mugako eremu kristau izan ziren guneei eginiko eraso horiek *ḡizya* ordainarazteko eginak izan zirela. *Bilād Alaba* eta *bilād Banbalūna* gune kristauak, *dār al-Ṣulḥ* eremuaren barnean, Kordobako agintearen menpe kokatu, eta beraz komunitate musulmana barnebiltzen zuen sistema tributario zentralizatuaren barnean izango zirelarik.

Babes-itunean oinarritutako *dār al-Ṣulḥ* eremuek inplizituki mugarekiko aditzera ematen dizkiguten ezaugarrietan sakonduz gero, hainbat hausnarketa genituzke mahaigaineratzeko. Alor administratibo-politikoarekin hasiz, aipatzekoa litzateke nahiz eta Kordobako boterearen menpe egon gune horietako agintariak beraien postua zein autonomia mantendu ohi zutelara (Yanaqu ibn Wanīqu adibide). Hori horrela, Kordobaren nagusitasuna onartzen zen mugako eremu horietan ere autonomia politikoa egon bazegoela ulertu beharko genuke. Bestalde, aitzinean adierazi bezala itun horiek tarteko gune kristauak ere tributuak (orokorrean *ḡizya*) ordaintzen zituztela kontuan harturik, ikusgarri genuke Mundu Islamiarreko arauetan oinarritzen zen sistema tributarioaren inposizio zein

aitorpenaren truke, non Iruñako jaun (*ṣāhib*) edota *amīr* gisara sailkatua izango den, Iruñako jaunak emirrari urtero zazpiehun *dirham* ordainduko zizkion, eta gudako gatibu musulmanak askatuko zituen (TA: 470).

¹⁶*Al-ṣayfa*-k, Goi Erdi Arotik aurrera al-Andaluseko indar musulmanek lurralde kristauen kontra egin ohi zituzten espedizio militarrek dira. Urtero egin ohi ziren, uda garaian ia beti (Maíllo 1996: 18).

¹⁷Ibn Ḥayyān-en eskutik, besteak beste 842 edota 843. urteko kanpainen berri izango dugu, zeinetan indar musulmanek Iruña eta inguruetako lurralde erasotu eta atzemaniko altxorarekin itzuliko ziren *dār al-Islām*-eko lurretara: “...lleno de botín y victorioso.” bezalako adierazpenak oso ohikoak izanik idatzi horietan (MQII: 301, 302). Al-ʿUḍrī-k ere halako aipamenak egingo ditu, espedizioei dagokienez Iruñaz gain Arabako eremuaz ere hitz egingez; hala nola, 924-925 urteetako kanpainari dagokionez: “*Hizo con el Principe de los Creyentes Abd al-Rahman la aceifa contra Yilliqiya, Alaba, al-Qila y Pamplona...*” (TA: 488).

hedapena gune musulmanetatik at ere eman zela. Horrela, konkista aurreko artikulazio-eskema bisigodoen apurketa sakona egon zela adieraztea zilegi izanik¹⁸.

Ezaugarri administratibo eta politikoetatik alor sozio-kulturalera igaroaz gero, mugako heterogeneotasun zein multikulturalitatea hobeto uler genezake eremu kristau hauek Kordoba zein beste lurralde musulmanekin izan ohi zuten harremanetan jarriz ikusmira. Harreman militar baketsu zein gatazkatsuetaz gain, *dār al-Şulḥ* eremuetako eta mugaz gaindiko gune musulmanetako biztanleen artean harreman familiarrak ere present izan zirela kontuan izan beharko genuke (horren adibide aurreko azpiatalean aipaturiko Banū Qasī leinu muladiaren eta Aritza Iruñako leinu kristauaren arteko senidetasuna) (TA: 469).

Gehitzeko, herri ezberdinen arteko senidetasuna egoteaz gain aipatzekoa litzateke mugako errealitate irekiak ahalbidetu zuen kultura materialaren elkartrukea. Ohikoa litzateke jatorri ezberdinetako materialen hartu emana mugako eremuetan, bai eremu kristau eta musulmanen arteko aliantza garaietan (merkataritza zein kalifaren opariak azpimarragarri) bai gatazka garaietan (arpilatzeak tarteko). Aipatzekoak dira jatorri andalustarra zuten objektu preziatu edota kalitatezko ehunen presentzia handia goiko erreinu kristauetan. Objektu materialetan adierazgarrienak, ordea, txanponak genituzke. Bereziki sinbolikoa litzateke penintsulako lur kristauetako moneta-zirkulazioan *dirham* andalustarrak izango zuen hegemonia, Oviedo-ko lurretatik Iruñako lurretaraino hura erabilia izango zelarik(Larrea 2009: 289).

Guzti hori horrela, zilegi dugu adieraztea *dār al-Şulḥ*-aren presentziak garrantzi nabarmena izan zuela bai mugako artikulazio administratibo-politikoan bai mugan barrena harreman sozial zein kulturalak egikaritzeko orduan, izan horiek militarrek, familiarrek zein materialak. Bide horretatik, guretzako azpimarragarriena ez litzateke *dār al-Şulḥ*-aren bitartez gune kristauak jasoko duten babesa, ezta kalifak horien gainean eskuratuko duen agintea ere. Garrantzizkoena ekintza horien ondorioz forma hartuko luken muga islamiarreko errealitatea genuke (bai Anatoliako muga, bai Mugalde Goienean); mugak, gune estatiko eta itxi bat izatetik urrun, zubi gisara jardun eta jende ezberdinak lotuko baititu, autonomia nabarmendun eremu dinamiko zein multikulturalak eratuaz.

¹⁸ Eskema bisigodoen apurketa eta Ekialdetik ekarritako eskemen ezarpenari buruz ikus Guichard (1995).

4. Ondorioak

Aitzinean aipatutako ideia ugariak zenbait ondoriotara bideratuko ligukete, zeintzuen bitartez Mugalde Goieneko errealitatea hobe ulertzea posible izango dugun. Lehenik eta behin, Erdi Aroko islamiar mugak politiko zein administratiboki izan zuen izaera dinamiko bezain irekia genuke azpimarratzeko. Estatikotasun eta oposizio irudiarekin hautsiz, *tagr*-ean leialtasun ugariak, aliantza ezberdinak zein azpijokoak eguneroko ogitzat har baigenitzazke. Aliantzak ugari bezain ezberdinak izango diren gisara izango dira aliantza apurketak ere, bai leinu ezberdinen artean, baina baita leinu eta emirraren artean ere, Banū Qasī zein Banū Tuḡyīb leinuetan izandako gertakariak horren erakusle. Errealitate dinamiko horren baitan, aurreko ataletan sakondu bezala musulman eta kristauen arteko harremanak ere oso ohikoak izango dira, bai militarrek bai familiarrak, izan mugaz gaindiko kristauekin edo izan *dār al-Islām* barnean biziko diren kristauekin. Bide horretan gainera, *dār al-Šulḥ* eremuaren presentziak erakutsiko digu emirra bera ere izan zela harremanetan mugaz gaindiko erreinu kristauekin, Iruñerri zein Arabako lurretako adibideak kasu.

Bigarrenik, gizartearen aniztasuna genuke azpimarragarri. Heterogeneidade hura dinamikotasunarekin oso lotua izango da, Kordobarekin zein mugaz gaindiko indarrekin izandako harremanek lurralde horiek herri ezberdinen eragina izatea ekarriko baitute. Nire aburuz, goian adierazitako Ekialdeko elementuen etorrera izango litzateke aniztasunaren eragile nagusia. Konkistarekin heldu eta finkatuko den agintedun etnia arabiarrek aniztasun etnikoan zuzenean eragiteaz gain, progresiboki nabarmenagoa dugun islamizazio eta horri loturiko arabizazio-prozesua eragingo baitute Ebro haranean barrena. Gainera, *dār al-Islām*-eko antolatze ereduak erlijio ezberdinen elkarbizitza, eta *dār al-Šulḥ*-aren bitartez mugaz gaindiko harremanak ahalbidetzen diren heinean aniztasuna are biziagoa izango da mugako eremu hauetan. Bide horretatik, konkistaren osteko mendeetan, Ebro haraneko *tagr*-ean etnia aniztasunaz gain erlijio zein hizkuntz aniztasuna ere azpimarragarriak izango dira, gune hori heterogeneo eta multikulturalizat sailkatzea legitimoa izanik beraz.

Azkenik, al-Andalus-eko *tagr*-ak jatorria Anatoliako mugan izan zuenaren planteamendua benetan zentzuzkoa dela azpimarratzea dagokigu. Horrela, Goi Mugako errealitatea zehazteko eskemek oinarria Ekialdeko mugan izan zutela kontuan hartuz, asusazkotasun eta inprobisaziotik at antolatutako gizartetzat sailkatu beharko genuke Mugalde Goienekoa. Bide horretatik, *al-Ṭagr al-Aʿlā* antolatzeko orduan aurrez

pentsaturiko sistema konplexua gailendu izan zela adieraztea zilegi genuke. Ekialdeko elementuen eragin-eremua alor politiko-administratibotik haratago eremu sozio-kulturalera ere hedatuko zelarik, zuzen bezain sakonki.

Guztia horrela, Mugalde Goiena aztertzean jorratutako ideiei lotuta, mundu islamiarra eta bide horretatik muga islamiarra ulertzeko erabiliak izan diren bideak etorkizunera begira hausnartu beharreko auzitzat genituzke. Ekialdeko elementu ezberdinen azterketa hobe gauzatzeko, hain erabiliak izan diren Mendebaldeko ideia eta ikuspegiak alde batera uzten hasi eta Ekialdeko munduan bertan present leudeken kontzeptu eta eskemak oinarrian jarri beharko genituzkeelarik, Ekialdea ekialdetik zuzendutako begiradaz lantzea xede.

5. Lehen mailako iturriak, bibliografia eta irudiak

LEHEN MAILAKO ITURRIAK

-(MQII) IBN HAYYĀN: *Al-Muqtabis fī tārij riḡāl al-Andalus*. Lévi Provencal, E. & García Gómez, E. (itz. & ed.)(1953): “Textos inéditos del “Muqtabis” de Ibn Hayyan sobre los orígenes del reino de Pamplona”, in *Al-Andalus: revista de la Escuela de Estudios Árabes de Madrid y Granada*, 19-2 zb., 295-315 orr.

-(MQIII) IBN HAYYĀN: *Al-Muqtabis fī tārij riḡāl al-Andalus*. Del Río González, A. & Turienzo Veiga, G. (itz.) (2017): *Al-Muqtabis III: (Crónica del emir 'Abd Allah I entre los años 275 H. / 888-889 d. C. y 299 H. / 912- 913 d. c.)*. Madril, Instituto Egipcio de Estudios Islámicos.

-(TA) AL-ʿUDRĪ: *Tarsīʿ al-Ajbar*. De la Granja, F. (itz.)(1966): “La Marca Superior en la obra de al-Udhri”, in *Estudios de la Corona de Aragón*, 8 zb., 447-545 orr.

-(TI) IBN AL-QŪṬIYA: *Tārīj ifitāḥ al-Andalus*. James, D. (itz.) (2009): *The Early Islamic Spain. The History of Ibn al-Qutiya*. New York, Routledge.

-(TR) AL-ṬABARĪ: *Tārīj al-rusūl wa al-mulūk*. Bosworth, C. E. (itz.) (1989): *The History of al-Tabari, annotated translation, XXX. bol.: The 'Abbasid Caliphate in Equilibrium. The caliphates of Musa al-Hasi and Harun al-Rashid (A.D. 785-809/A.H. 169-193)*. New York, The University of New York Press.

BIBLIOGRAFIA

-ABULAFIA, D., BEREND, N. (ed.) (2002). *Medieval Frontiers. Concepts and Practices*. Londres, Cambridge-ko Unibertsitatea, Routledge.

-AYALA MARTÍNEZ, C. de (2018). “Fronteras y espacios fronterizos. Edad Media-Época colonial (Presentación II)” in *Intus-legere: Historia*, XII bol., 2 zb., 1-5 orr.

-BARRIO, J. A. (2011-2013). “El concepto de Frontera en la Edad Media. La Frontera Meridional del Reino de Valencia. Siglos XIII-XV”, in *Sharq al-Andalus*, 20, 41-65 orr.

-BONNER, M. (1994). “The naming of the frontier: 'Awāim, Thughūr, and the Arab geographers” in *Bulletin of the School of Oriental and African Studies*, 57, 17-24 orr.

-CAÑADA JUSTE, A. (1980). “Los Banu Qasi (714-924)”, in *Príncipe di Viana*, 158-159 zb., 5-96 orr.

- CHALMETA, P. (1991). "El concepto de Ṭagr", in *La Marche supérieure d'al-Andalus et l'Occident chrétien*. Série Archéologie: XV. bol. Madril, Casa de Velázquez. 15-27 orr.
- CORRAL, J. L. (1987). *El sistema urbano en la Marca Superior de al-Andalus*. Turiaso: 4 zb., 23-64 orr.
- EGER, A. (2005). "Islamic Frontiers, Real and Imagined. Al-'Usur al-Wusta, in *The Bulletin of the Middle East Medievalists*. XVII. bol., 1. zb., 1-6 orr.
- EGER, A. (2012). "Ḥiṣn, Ribāṭ, Thaghr or Qaṣr? Semantics and Systems of Frontier Fortifications in the Early Islamic Period", in *The Lineaments of Islam*. Brill: Leiden & Boston. 427-455 orr.
- FIERRO, M. (1995). "Árabes, beréberes, muladíes y mawali. Algunas reflexiones sobre los datos de los diccionarios biográficos andalusíes", in *Estudios onomásticos-biográficos de al-Andalus*, VII. bol. Madril, CSIC. 41-54 orr.
- FIERRO, M. (2009). "El Conde Casio, los Banu Qasi y los linajes godos en al-Andalus", in *Studia histórica: Historia Medieval*, 27 bol. , 181-189 orr.
- GARCÍA SANJUÁN, A. (2020). *Yihad: La regulación de la guerra en la doctrina islámica clásica*. Madril, Marcial Pons Historia.
- GUICHARD, P. (1995). "La España Musulmana. Al-Andalus Omeya (siglos VIII-XI)", in *Historia de España*, 7. Madril, Historia 16.
- LARREA, J. J. (2009). "Construir un reino en la periferia de al-Ándalus: Pamplona y el Pirineo occidental en los siglos VIII y IX", in *Territorio, Sociedad y Poder*, 2, 279-308 orr. Revistas Electrónicas de la Universidad de Oviedo. Eskuragarri <https://reunido.uniovi.es/index.php/TSP/article/view/9492-n>.
- LORENZO, J. (2009). "Algunas consideraciones acerca del Conde Casio", in *Studia Historica: Historia Medieval*, 27 bol. , 173-180 orr.
- LORENZO, J. (2010). *La Dawla de los Banū Qasī. Origen, auge y caída de una dinastía muladī en la Frontera Superior de al-Andalus*. Madril, CSIC.
- LORENZO, J., PASTOR, E. (2011). "Al-Andalus ¿en la periferia de Vasconia? Sistemas de dominación de *bilād Banbalūna* y de *Alaba wa-l-Qilā*⁶ en la octava centuria", in *Vasconia en la Alta Edad Media, 450-1000: poderes y comunidades rurales en el norte peninsular*. Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea. 55-70 orr.
- MAGHEN, Z. (2003). "The Interaction between Islamic Law and Non-Muslims", in *Islamic Law and Society*, 10, 267-268 orr.
- MAÍLLO, F. (1996). *Vocabulario de Historia árabe e islámica*. Madril, Akal.
- MANZANO, F. (1991). *La frontera de al-Andalus en época de los Omeyas*. Madril, CSIC.

- MANZANO, F. (2013). “A vueltas con el Conde Casio”, in *Studia histórica: Historia medieval*, 31 bol. , 255-266 orr.
- NEGRE, J. (2013). *De Dertosa a Ṭurtūša L'extrem oriental d'al-Ṭagr al-Aʿlā en el context del procés d'islamització d'al-Andalus*. Bellaterra, Universitat Autònoma de Barcelona.
- RADOSLALOVA, Y. (2018). “Aculturación en la frontera. La arabización de los muladies en la Marca Superior”, in *Aragón en la Edad Media*, 29, 165-198 orr.
- SAFRAN, J. M. (2013). *Defining boundaries in al-Andalus. Muslims, Christians and Jews in Islamic Iberia*. New York, Cornell University Press.
- TURNER, F. J. (1893). *The Significance of the Frontier in American History*. Chicago, American Historical Association-eko bileran esana. Eskuragarri <http://nationalhumanitiescenter.org/pds/gilded/empire/text1/turner.pdf>
- VIGUERA, M. J. (1981). *Aragón musulmán*. Zaragoza, Mira editores.

IRUDIAK

- 1.irudia: LORENZO, J. (2020). “Los thugur de oriente y los thagr de occidente: una propuesta de identificación”, in *Cuadernos de Arquitectura y Fortificación*, 6. Madril, La Ergástula. 11-32 orr.